

Sorgiñak eta lapurrak...

" - EGUZKI AMANDREA, ZERUAN ZE BARRI?

- ZERUAN BARRI ONAK ORAIN ETA BETI! "

Ba bai, gure aurretikuak antza euzkixarekin berba eitxeko abilidadia eken eta harek erantzun gainera. Herri nekazal guztixak errespeto haundixa dotsie, hari begira bizi dia eta. Kultura askok jainkosa trataeria emon dotsie eta gurian be ondiñok indarrian dagozan ohitxura batzuk Eguzkiren jainkotasuna erakusten doskue. Urtaruen aldaketak jai giruan emoten zitxuezen, euzkixaren bi solstiziuak ospatuz: negukua abenduaren 24an eta udakua ekainaren 24an. Gabonetakua etxe barruko ospakizuna bada, udakua jai zaratatsu eta kanporakoia da. Halan diño esakeriak be: "Sanjuanetan plazan, Gabonetan plantxan".

San Juan egunian udiaren etorreria eta basarriko frutuak heltzen hasten dian sasoia ospatzen da. Urteko honek egun luzienok (15 argi ordu) Eguzkiri eskaiñiak ziran. Herri siñiskeriak diñonez San Juan egun goizian euzkixak dantzatzen urtetzen dau eta egun horretan mendira igo bihar da zeruko amandriaren dantzia ikusteko.

Egun horretako ohitxurak hiru elementuren inguruan batu leikeguz: sua, ura eta landarak.

SUA

Jai honen sinbolorik ezagunenak suak dia. Erromatarrak be gau suak eitxen zitxuezen udako solstizuari jeria eitxeko. Euskal Herrixan herriko plaza edo basarrietako bidegurutzeetan ixotzen ziran, ikusteko moduko leketan. Honek suok azaleko gaixotasunetatik babesteko indarra dake askoren ustetan. Suaren inguruan batu eta su ta garren gainetik salto eitxia da gauziori, bide batez zera kantauaz:

**SAN JUAN SAN JUAN
ARRAUTZA BI KOLKUAN
BESTE BI ALTZUAN.
SORGIÑAK ETA LAPURRAK
ERRE ERRE
ARTUAK ETA GARIXAK
GORDE GORDE.
BIBA SAN JUAN!**

Orduan erretzen dia aurreko urtian bedekautako lan-


dare txortak eta iria, urte osuan ganbaran kako batetik txintxilika gorde izan dianak. Sasoi baten, txingarra hotzitzera-kuan etxeko ganauari gainetik pasau eraitxen jakon, kalte eta ezbehar guztixetatik libratzeko esperantziaz.


URA

Su eta ur gaba da ekainaren 23kua. Itsaso, erreka eta itxurrietako urak zein iruntzak indar berezixak hartzen ditzuztela entzute haundiko siñiskeria da. Eguna argitsu orduko iruntza hartzia, bedar gainian ortozik edo billutzik ibiltzia, gure artian asko zabaldutako usadizua da.

LANDARAK

San Juan bezperan txortatxo kurioso bat prestatzen zan garixa edo artua, berakatza, sagar adar bat eta iriak. Bedeinkatu eta gorde eitxen zan. Trumoi usaiña ebillenian, bedar batzuk sutara botatzen ziran.; bateron bat gaixotu ezkeru, ur irakiñian





optika
itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 71

943172665 ERMUA



Zubiaurre 20

*Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona*

erre erre!

egosi eta haren lurrinak hartzen zitxuan... geratutako apurak hurrengo urtian txinparta artian erreaz.

San Juan egunian ortozik mendira juan, lizar edo elorri zuri adarrak moztu eta etxera ekartzen ziran, ataiko atiaren albo bixetan ipintzeko. Hantxe ximeltzen ziran eta etxia oiñaztuetatik babesten eben uste osua eken. Funtziño bardin-bardiña emoten zotsien urtenaldi horretan batutako iria edo iratzeari: ataixan zabal-zabal sikatzeko berrogei bat egun laga ostian, sabaixan gordetzen eben, hurrengo urteko suetan erretzeko. Bitxiak dia landara honen izen botanikuak: erderaz 'helecho hembra' dana, euskeraz 'sorgin-iratz' moduan ezagutzen dogu eta 'helecho real' izendatuakuari, guk 'San Joan iratz' deitzen dotsagu.


Urtiaren eguerdixan gaoz, frutuak eta ilusiñuak helduaz doiaz. "Orain arte belar, hemendik aurrera gari" diño sasoi honi lotutako esakera zaharrak. Ereindakuaren bakoitzaren aurtengo uzta oparua izan deixela!

IRRINTZIXA BOTA NAHI DOZULA?

Mari Eli Arrieta etxebarriarra irrintzilarixa da eta erakustaldi ugaritxan parte hartutakua. Zein hobeto ijuixon jakinbiharrak argitzeko?

Arnasia ei da hemen oiñarrixa: tripan eutsi eta irrintzi-
xa botatzen jua ahala haixia neurtu bihar da. Hau kontrolatzen ez bada, pott eixep dau. Irrintzi osua haixe kolpe bakarrakin bota bihar da, tartian arnasarik ohostu barik. Luzeeriak ez ei daka horrenbesteko garrantzirik; batzuk motzak izan arren amaiera ikusgarri dake eta hori da gehixen bat aintzakotzat hartzen dana, akaberia. "Ez dau amaitxu" da irrintzi-argotian luzimendu barik geratu dala aitzen emoteko erabiltzen dan esaldixa. Tonuari goixan eutsi bihar jako, amaieran ijui eiñaz bajatuaz; azken hau biribiltzen ahalegindu bihar da irrintzilarixa. Irrintzi baten aurrian honek danok goguan hartuta be, sekula be ez ei dabe bardiñ urtetzen bi irrintzik, nahiz eta bata bestiaren segixan bota.

Gure aurretikuak emoten zotsien erabilpena galduta dago,



baiña horrek ez dau esan gura ezin danik gure gizartiaren premiñetara egokitxu. Sekula probatu dozue mendira jua eta irrintzi bat botatzia? Ez dozue ezagutuko desestresante hobiagorik!

Botika barik saniatzia nahi daben stresak jotakorik eza-
gutzen badozue, gerturatzia daka domeka gabian plazara. Ijuixorrek itxuran urten edo ez, txaluak ziurtauta dakaz.

Estibalitz González

SAN JUAN SUA ERMUKO PLAZAN

Domekan, ekaiñaren 23an.

Gabeko 10etan


Irrintzi lehiaketa, "Pispillu" abesbatza, txalaparta, dantzak, erritualak...



OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**

• Astelehenetik ostiralera 9etan
zabaltzen dugu



*Euskara eta euskaltegia
egin biak zureak*



Gure Etxea z/g (Ongarai)
Tel. 943 17 09 25